



Gaurko egunez, duela 50 urte, Espainiako Poliziak Mikel Gardoki eusko gudaria tiroz erail zuen

AGENTZIAK/LA HAINE :: 23/04/2025

Indar errepresiboek bizkarretik tiro egin zioten, Mikel ihes egiten ari zenean.

Gaur 50 urte beteko dira Polizia frankistak Mikel Gardoki eusko gudaria tirokatuta hil zuenetik, Astigarragako(Gipuzkoa) Ergobia auzoan. Egun horretan, propaganda garraiatzen ari zen 25 urteko andoaindarra, Juan Migel Goiburu Goierri-rekin batera. Erregimen frankistaren bertsio ofizialaren arabera, Ergobiako taberna batetik ateratzean, polizia agenteen aurka tiro egiten hasi ziren; bertsio horren arabera, agenteek ere tiroz erantzun zuten eta Gardoki hil zuten. Hala ere, lekukoek bestelako bertsio bat eman zuten, sinesgarriagoa. Ergobiako bizilagunen arabera, Mikel eta bere laguna korrika atera ziren tabernatik, ihesean. Momentu hartan tabernaren atearen inguruan zeuden poliziek tirokatu zituzten atzetik. Mikel bertan hilda eroriz. Goierri atxilotu eta torturatu zuten, eta biharamunean salbuespen egoera ezarri zuten Gipuzkoan eta Bizkaian, ETA behin betiko desartikulatu asmoz. Mende erdia pasatu bada ere kasu hau argitu lezakeen dokumentazioak Sekretu Ofizialen legepean blindatua darrai.

1979tik Gardokiren izena zuen pasealeku bat zegoen Ulian, Ategorrietako frontoitik gertu. Ordea, 2008an, kalearen izena aldatzeko eskatu zion Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak Donostiako Udalari; Gardoki ETAKoa zelakoan, auzia epaitegietara iritsi zen eta, 2011n, kalearen izena aldatzeko agindu zion epaitegi batek udalari. Gaur egun, Bordatxipi da pasealeku horren izena.

<https://eh.lahaine.org/gaurko-egunez-duela-50-urte>